

EUSKAL DANTZAK:

25 urtez dantzaren sokari helduta

50eko hamarkadan Elgoibarren zeuden dantza talde gehientsuenak elizari lotutakoak ziren. Eta *Elgoibar Dantzan* liburuan irakurri dugunez, elgoibartar batzuk Erromako San Pedro Plazan egin zuten dantzan 1957ko abuztuaren 24an. Data esanguratsua elgoibartarrantzat.

Halere, 50eko hamarkadaren amaiera aldera, dantza taldeak kultur elkarteen eskuetara pasatzen hasiko dira. Ongarri Kultur Elkartek, adibidez, 1959ko uztailen Santa Ana kalean aurkeztu zuen bere dantza taldea.

1964ko ekainean, berriz, estreinako dantza talde tradizionala sortu zen Elgoibarren: Elorra dantza taldea, hain zuzen ere. 1964ko abenduaren 25ean aurkeztu zuten euren burua talde moduan, eta 1965ean hartu zuen bere gain San Bartolome eguneko soka-dantzaren ardura. 1972an egin zuten soka-dantza azken aldiz, eta 1973ko abuztuaren 4an desagertu zen taldea.

Bestalde, 1964. urtean Elgoibarko Izarrak bere lehen dantza taldea aurkeztu zuen. Umeen dantza taldea zen. Garai hartan Euskal Jaiak edo Haurren Jaiak indar handia hartzen hasi ziren. Elkarteko dantzariak inguruetako herrietara joaten ziren, eta dantzarien gurasoak ere lagun izaten zituzten askotan. Elgoibarren 64an egin zen estreinako Euskal Jaia. Euskal jaietan ez ezik, San Anton Egunean ere Odeon antzokian egiten zen jaialdian parte hartzen zuten Elgoibarko Izarrako dantzariak. Azpimarratzekoa da 1972ko Trinitate egunean ospatutako egun osoko umeen Euskal Jaia, Elgoibarko 589 haur eta gazteren partaidetzarekin.

Elkarteko estreinako dantza taldea 12-14 mutilekin hasi zen, baina berehala hurreratu zitzaizkien 20 neska.

Elkarteko estreinako dantza taldea 12-14 mutilekin hasi zen, baina berehala hurreratu zitzaizkien 20 neska. Gerora, taldea handitzen joan zen poliki-poliki, eta 400 ikasle izatera ere iritsi zen.

Hasieran Ongarri dantza taldekoak ibili ziren umei dantzak irakasten; gero, Elorrakoak eta, azken urteetan, Haritz dantzari taldekoak (hauetako asko ikasle moduan hasitakoak).

Haritz Dantzari Taldea 1974an sortu zen, eta umei dantzak irakastea zen taldearen helbururik garrantzitsuena. Halere, Haritzek bazituen beste bi helburu: bat, Elgoibarko tradizioak mimos gordetzea, eta bi, dantza munduan arrasto berriak zabaltzea.

Entsaioei dagokienez, hasieran Loritoko lokaletan egiten zituzten. Gero, Plaza Txikiaren ondoan zegoen tailer zahar batera pasa ziren, eta, azkenik, Azoka Plazako terrazan egiten zituzten dantza entsaioak.

Eta 25 urtez Elgoibarko Izarrak bere dantza taldea izan eta gero, 1990-91 ikasturtean Inazio Bereziartua Musika Eskolak hartu zuen Elgoibarren euskal dantzak irakasteko ardura. Une honetan etengo da Elgoibarko Izarra eta euskal dantza lotzen zituen soka.



Elgoibarren 1964an antolatu zen estreinako Euskal Jaia. Dantzarien eguna izaten zen.



1972ko Euskal Jaian, adibidez, 589 haur eta gaztek hartu zuten parte.



Egun osoko jaia izaten zen, eta estimazio handia izaten zuen herritarren artean.



Erretratuan azaltzen zaizkigun neska-mutilak osatu zuten 1964. urtean Elgoibarko Izarrako estreinako dantza-taldea.